



**Helduen Literatura | POESIA**

*Poemak*  
 Maria Merce Marçal  
 Itzultzailea: Itxaro Borda.  
 Susa, 2014

## Hiru bider errebelde

HIRU BIDER ERREBELDE egin ei zuten zirkunstantziak eta gizarteak Maria Merce Marçal (Ivars d’Urgell, 1952 – Bartzelona, 1998). Aitortu ere berak aitortzen du mentura deitzen duen horri zor dizkiola hiru dohain: emazte sortu izana, klase sozial apalekoa eta herrialde zapaldukoa. Katalan Herrieta-ko feministen enblema izan ziren eta dira oraindik hitzok, kaiera hau irekitzen duen *Dibisa* poemakoak, bere asmo guztien lehen liburua izan zen *Cau de llunes* (1977) ederretik hartua. Aipatzen duen herrialde zapaldu hori da Katalunia, bertan izan baitzen emakume Marçal. Batez ere emakume. Eta emakume katalan gisa zen, halaber, munduko proletarioen batasun ikusezinezkoaren parte.

Munduko Poesia Kaiaretako bigarren antologia hau beraz, hitzaurrean Beñat Sarasolak dioen legez, politikoki da pertsonala: “Dimentsio intimo nabaria dute ale ugari, baina dimentsio txiki horretan, (...) gizarte eta giza-harreman arteko auzi handiak azaltzen zaizkigu ezbaian”.

Marçal gai da xumeenetik egiteko poesia gorena. Edo agian gorena xumeena dela gogorarazi baino ez digu egiten. Erratza, trapua, lixiba eta xaboia armak dira beretzat. Xamurtasuna atributu. Poesia mailu bigun bezain sendo. Eta, bat-batean, murgil zaitzake dilema zailenean, kontraesan abstraktuena planteatu:

“Nor dabil nitarik kanpo?/ Nola pentsatuko zaitut/ ni zu ez banintz bezala?”.

Poetaren sekretuak eta poesia paraleloan doaz hortaz. Nortasun artega baten bristada itsugarriak euskaratu ditu Itxaro Bordak. Ematen du katalanezko berezkoaren perfekzioa gordetzen dutela itzulpe- nek. Deskuiduan katalanezko berezkoak ez balira perfektuak, euskarazko hauek badira. Itxarorentzat seguru izan dela abentura bat berriro bizitzea lez, literarioki hain dira pertsonalak-eta aleetako asko... Yourcenar edo Ajmatova gogorarazten dute.

Oinatzak ezkutatzeko ahalegina egiten du Marçal-ek, eta era berean biluztasun guztiak jartzen ditu a- g- rian. Egia esateko konpromisoa bere gain hartu zuen idazlea izan zen inondik ere, irudi eta efektu aldetik fina eta benetakoa. Niretzat aurkikuntza izan da, ezus- tea, oparia: “Su hartu genuen, hedoi- en sagardian./ Fruta bizia belarrera erori zen”. Mediterraneo-ko zelai leunak gogorarazi dizkit, halako batean lainoz estali eta euri biolento batek bustiak. Ama baten sabela eto- rri zait burura, umea barruan ostikoka daukana. Esku- zabala iruditu zait Maria Merce Marçal- en poesia. Dena ulertuko ez banio legez utzi nau, gehiago irakurtzeko gogoz. ■

**Igor Estankona**



● ZIENTZIA  
 ● IRAKURLE  
 ● ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



BIZKAIA BIZIA